

Herri-nazioak eta errejioak

Deia, 1977-07-26.

Espainia-ko deszentralizazioaz ari direnean, ba dirudi gure herriaren arazo beraz ari direla.

Eta ez du honela.

Gauza bat gara Nazionalitate oso bat osatzen dugun herriak; historiaz, kulturaz, hizkuntzaz eta tradizioz *nazio* bat garenak; eta beste bat Espainia-ko errejio huts direnak.

Bereiztasun hoietako bat aitatu nahi dut gaur.

Espainia-ko estatuan, Europa-ko beste estatuetan bezala etorri zen XIX gizaldian liberal iraultza. Hala, Europa-ko beste estatuaren antzera, zentralismo baterakoi bat ezarri zen Espainian. Frantzia-ko molde berekin.

Garbi dago Espainia beti Frantzia-ren atzean, atoi bezala, ibili dela; baita politikan ere.

Garai hartan, Espainia-ko errejio eta herri guziak liberalismo-unitario hori ontzat hartu zuten; behintzat, ez zen aurkako erantzukizunik nabarmendu; bai, bat: Euskal Herria.

Hau, historia hutsa da.

Honek esan nahi du unitarismo liberal hori ezarri zigutenean, Catalunya berak ere onartu zuenean, Euskal Herriak uko egin ziola, eta ez bigunki, baizik eta borroka latz eta gogorretan sartu zela ezartze horren aurka. Gu izan ginen *Foruak gorde genituen bakarrak* XIX gizaldian oso aurrera sartu arte; Catalunya-k XVIII-ren lehenengoetatik galduak baizituen.

Eta gure asmoen eta herritasunaren alde bi guda izugarriak, luzeak, odoltsuak, lekuko.

Gero, Franco-ren berrogei urte hoietan, edozeinek ba daki gaur nork borrokatu duen gure herriaren borondate, nahi eta behar gorri bezala sentitzen dugun horregatik.

Hemen ezin dira, bada, gure sustraiezko arazoekin jostaketan hasi; ez digute gure herritasuna urez pasako; ez diegu gure historia Espainia-ko manualetan eta hixtorietan TBO gisa erakutsi dutelako, egitaz gertatu ez balira bezalako tratamentua ematen utziko.

Gu, Herri bat, Nazionalitate bat, gara.

Zuzenbide osoz, legez, justiziaz eta exigitzen dugu. Gainontzekoak *berea* eskatzea eta exijitzea legezko da, eta zuzen.

Eta nahasketarik, ez.